

A woman on the left and a man on the right are speaking at a conference. The woman is wearing a bright yellow blazer over a dark floral top and has a microphone clipped to her ear. The man is wearing a dark suit jacket over a light-colored shirt and has a microphone clipped to his ear. They are both looking towards the right of the frame. The background is a solid light blue color.

BIND 4.0 SME CONNECTION 3. EDIZIOA

**ETE ETA STARTUP-ENTZAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO
OINARRIAK**

PROGRAMAREN OINARRIAK

1. Ekimenaren xedea

BIND SME Connection 2021eko irailean sortu zen, BIND 4.0 Programan Startup-en eta partner enpresen harremaneko dinamiken inguruan sortutako jakintza baliatzeko, **ETE eta Startup-en arteko lankidetzak aukera berriak sortzeko**. Kasu honetan, ETE parte-hartzaileen arteko erronka sektorialeko eredu partekatua izango dute oinarri.

Horrela, ekimen hau Euskadiko Klusterraren Antolakunde Dinamizatzaile (KAD) desberdinetako ETE osagarrien artean partekatutako proiektu teknologikoak sustatzera bideratutako esperientzia gisa sortu zen.

Eredu horri esker, ETE parte-hartzaileen artean partekatzen diren beharrak/aukerak identifikatu nahi ditugu, Startup-etara erronka gisa helarazteko eta ondoren horiek gauzatzeko; jarraian, proiektu pilotuak batera gauzatu dira, ondoren eskalatu daitezkeen soluzio teknologikoak testatzeko.

Startup-ei begira, programaren azken xedea merkaturako eta finantzaketarako sarbidea erraztea da. Horretarako, batez ere, Euskadiko Espezializatorako Estrategiaren espezializazio-sektoreei eta aukera-eremuei lotutako ETE-ekin konektatzen dira, sektore horiek ordezkatzeko dituzten KADekin lankidetzan arituz, hala nola: Hegan, Basque Food Cluster, ACICAE, Basque Health Cluster, ERAIKUNE, ACE+Fluidex, MAFEX, AFV+Fundigex+Sife, Habic, FMV, Aclima, Clúster del Papel de Euskadi, SIDEREX, AFM+Invema+Eskuin, GAIA+AVIC+Basquegame, eta MLC+Uniport.

ETE-ei dagokienez, honako hau da programaren xedea: teknologia berriak eta konponbide berritzaileak sartzeko bide azkarra bultzatzea, lehia-posizioa hobetzea, ekintzaitza hurbiltzea eta lankidetzan oinarritutako lan-filosofia bereganatzea bultzatzea, bereziki ETE homologoekin lankidetzan aritzearen bidez, Klusterraren Antolakunde Dinamizatzaile (KAD) bakoitzaren barruan.

2. Erabiltzeko baldintzak onartzea

Honako baldintza hauen xedea da BIND 4.0 SME Connection ekimenean **parte hartzeko arauak** ezartzea. Ekimen honen 3. deialdian parte hartzeak **oinarri hauek onartzea** esan nahi du, salbuespenik edo baldintzarik gabe, bai eta SPRIk eta/edo BIND 4.0 programako Talde Kudeatzaileak ekimen horri buruz har dezaketen edozein erabaki ere.

3. Terminoak eta definizioak:

Ekimen honen ondorioetarako honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- **"SPRI":** SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikia.
- **Klusterraren Antolakunde Dinamizatzailea (KAD):** Elkarren arteko lotura duten eta/edo eremu industrial eta geografiko berean lan egiten duten enpresak biltzen dituen enpresaburuen elkartea. Enpresa horiei laguntza estrategikoa ematen die lankidetzaren bidez lehiakortasuna hobetzeko.
- **BIND 4.0 taldea:** Programako talde kudeatzailea. SPRI taldeko, Eusko Jaurlaritzako eta BICetako langile teknikoei osatzen dute.
- **Koordinazio eta ebaluazio batzordea:** SPRIko eta KADetako kideek osatutako lantaldea. Zeregin nagusia da ekimena antolatzea, nahastuta dauden eragileak koordinatzea eta jardueren jarraipena egitea. Ekimenean parte hartzen duten KAD adina komite sortuko dira; hortaz, sektoreko ETE talde bakoitzak bere erreferentziako batzordea izango du.
- **Startup:** Enpresa sortu berria, eskalatu daitekeen negozio-eredua helburu duena, merkatu objektibo bati zuzendutako produktu eta/edo zerbitzu berritzaileak garatuz negozio-eredu eskalagarria helburu duena.
- **ETE:** 250 langile baino gutxiago dituen enpresa. Ekimenean parte hartzen duten KADetako bati lotuta dago eta 4.0 teknologien aplikazioan oinarritutako prozesuak eta produktuak ditu.

- **Workshop:** Tailer edo lan-saio parte hartzailea. Bertan, ekimenean parte hartzen duten ETE-ek hainbat jarduketa kolaboratibo garatzen dituzte helburu komunak lortzeko.
- **Pitching:** ETE eta Startup-en baterako saioak. Bertan parte hartzaileek, aurkezpen baten bidez, proposamenak aurkezten dituzte eta ideia edo negozio bat toki eta une jakin batean azaldu dezakete.
- **Matching:** Ebaluazio eta koordinazio batzordearen eta ETE-en arteko lan kolaboratiboa oinarri duen fasea. ETE-ek aditu baten laguntza jasoko dute, eta horri esker planteatutako erronka eta zehaztasunekin bat datozen Startup-en proposamenak aztertu eta hautatuko dituzte. Hautaketa hori abiapuntua izango da proiektu bat sinatzea helburu duten balizko enpresa-harremanak garatzeko.
- **B2B ekitaldia:** Startup-en eta ETE-en arteko networking-a ahalbidetzeko ekimena; bertan, interesdunen arteko interrelazioa azkartuko eta eraginkor bihurtuko duen parekatze-sistema erabiltzen da.

4. BIND 4.0 SME Connection 2. edizioaren funtzionamendua

Ekimenaren hirugarren edizioa norgehiagoka-araubidearen arabera egingo da. Bertan, programak proposatutako dinamikan parte hartu nahi duten KADek BIND 4.0 taldeari “kluster hautagaitza” bidali beharko diote. Hautagaitza horrek programan parte hartu nahi duen ETE talde baten balioa nabarmenduko du, eta, hortaz, aipatutako ETE-ek oinarri hauek onartuko dituzte.

ETE bakoitzak programan parte hartzeko, KADak aldeztatik hautagaitza bidali beharko du, Startup baten laguntzaz konpondu nahi duten problematika komuna duen ETE talde baten balioa nabarmentzeko. Problematika partekatua izango da, eta ondoren merkaturatu nahi da, baterako erronka sektorial gisa.

Honako hauek dira hautagaitzen gutxienezko baldintzak:

- KAD bakoitzak hautagaitza bakarra egingo du, eta bertan parte hartuko duen enpresa talde bakarra proposatuko du.
- Enpresa-talde horietan gutxienez 3 eta gehienez 5 ETE bilduko dira.

- Lantalde bakoitzak gehienez ere 2 erronka proposa ditzake, eta lantaldeko ETE guztien parte hartu beharko dute proposatutako erronketan. Hortaz, KADetan ezin da azpitalderik sortu.
- Hautagaitzek (erronkek) egitura jakin bat izango dute, eta hautagaitza guztiek bete beharreko baldintzak bete behar dituzte. Gainera, alde zehaztutako irizpide jakin batzuen arabera ebaluatuko dira. Xehetasun gehiago izateko, puntu horri buruzko xehetasun gehiago ematen dira 5. atalean (Hautagaitzaren egitura) eta 6. atalean (Hautagaitzak baloratzeko irizpideak).
- Gutxieneko kalitate-irizpideak betetzen dituzten hautagaitzak hautatuko dira.

Halaber, proposamen horietan bildutako ETE-ek hurrengo atalean zehaztutako ezaugarriak bete behar dituzte.

5. ETE parte-hartzaileen ezaugarriak

- Ekimenari atxikitako KADei lotutako ETEak.
- KADetatik kanpoko ETEak, kasuan kasuko KAD sektorialak bere hautagaitzan sartzeko onartu dituenak.
- BIND 4.0 bertikalei eta/edo Euskadiko RIS3 espezializazio adimenduneko arloei lotutako ETEak.
- Euskadin gutxienez jarduera-zentro bat duten ETEak.
- 250 langile baino gutxiago dituzten ETEak.
- Startup-ekin lanean aritzeko interesa eta konpromisoa duten ETEak, eta ekimenaren jarduera desberdinetan dedikaziorako eta tartean sartzeko baliabide nahikoak izan ditzaketenak.
- Heldutasun teknologiko nahikoa duten edo prozesurako gaitutako giza baliabideak dituzten ETEak, programaren arduradun bat esleitzen dutenak eta ekimenaren jardueretan dedikazioa dutenak.

6. Startup hautagaien ezaugarriak

BIND SME Connection honako Startup profil hauetara zuzenduta dago:

- Industria-sektoreari eta hari lotutako zerbitzuei aplikatutako teknologia berritzaile berriak garatzen dituzten startup-ak, edo garapen teknologikoa amaitu duten ETE parte-hartzaileen produkzio-prozesuetan eta/edo zerbitzuetan zuzenean aplikatzen direnak, eta beren zerbitzuaren/produktuaren konfigurazioa amaitzeko moduan daudenak; hau da, ikusteko, aztertzeko, probatzeko edo merkatuan eskuragarri dagoen produktu edo zerbitzu bat dutenak.
- 8 urte baino gutxiago dituzten Startup-ak, eta enpresa-garapena bizkortzea behar duten enpresa-prozesuak hobetzeko teknologia berriak erabiltzea proposatzen dutenak.
- ETE-entzako proposatutako erronketan aplikatu daitezkeen Startup-ak, eta Euskadiko Espezializazio Estrategiaren espezializazio-sektoreetan eta aukera-esparruetan txertatzen direnak.

Koordinazio eta ebaluazio batzordeek Startup-ak identifikatzeko prozesuan honako hauek gehituko dira, gutxienez:

- BIND 4.0 aurreko edizioetan parte hartu duten Startup-ak, eta BIND 4.0 programako partner enprekin lankidetzaproiektuak garatu dituztenak.
- Euskadiko inkubagailu publikoen sarean dauden Startup-ak (BIC Araba, BIC Bizkaia eta BIC Gipuzkoa).
- Ekimenean dauden KADei lotutako Startup-ak.

7. ETE parte-hartzaileen konpromisoak

Parte hartzen duten ETE-ek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ekimenaren erabiltzeko baldintzak onartzea eta betetzea.
- Ekimenean proposatzen diren dinamiketara bertaratzea eta horietan aktiboki parte hartzea, eta zehaztutako lanak eta jarduerak betetzea.
- Behin ETE eta Startup-aren arteko lankidetzakontratua egin ondoren, proiektua garatzeko beharrezko dedikazioa eskaintzea.

Dedikazioa gutxienez 40 ordukoa izango da, programan nahasteko eta benetako onura lortzeko. Hortaz, programarekiko parte-hartze proaktiboa izango da eta erakundearen barruan egin beharreko lana egongo da. Honako hauek dira garatu beharreko gutxieneko lanak eta orduak:

- Sustapena + Erronkak identifikatzea eta karakterizatzea = 12 ordu
- Startup-ak aztertzea eta hautatzea = 8 ordu
- Matchmaking saioak (pitching + B2B ekitaldia Startup-ekin) = 10 ordu
- Barne hausnarketa lanak + komunikazioa = 10 ordu

Faseei eta funtzionamenduari buruzko informazio gehiago behar izatekotan, ikus dokumentuaren 13. eta 14. atalak.

8. Startup parte-hartzaileen konpromisoak

Startup parte-hartzaileek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Erabiltzeko baldintzak onartzea eta betetzea.
- Ekimenean proposatzen diren dinamiketara bertaratzea eta horietan aktiboki parte hartzea, eta zehaztutako lanak eta jarduerak betetzea.
- Behin ETE eta Startup-aren arteko lankidetzakontratua egin ondoren, proiektua garatzeko beharrezko dedikazioa eskaintzea.

9. Ekimenaren eta ETEaren arteko harremana

ETE bakoitzak harremanetarako pertsona bat izendatuko du, erreferentziako batzordearekin (SPRI/KAD) komunikazio arina izan dezan. Pertsona horrek 18 urtetik gorakoa izan beharko du eta ekimenetik eratorritako komunikazioei erantzuna emateko prest egon beharko du.

Koordinazio eta ebaluazio batzordeak edozein ETE parte-hartzailearen jarrerari buruzko balorazio negatiboa ematekotan, ekimenetik kanporatu ahalko da, eta horrek ez du SPRIren konpentsaziorik edo ondorioz ekarriko. Jarrera negatibotzat hartuko dira lan-planean ezarritako betebeharrak ez betetzeari lotutakoak.

10. Konfidentzaltasun politika

Startup-ek BIND 4.0 SME Connection-era aurkeztutako hautagaitzen edukia, bai eta ETE-ek informazioa emateko eta esku-hartzeko faseetan bildutako edukia ere konfidentziala eta mugatua izango da, eta hala tratatuko dute ekimenaren sustatzaileek.

11. Datu pertsonalen babesa

Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean DBEO) eta datu pertsonalen babesaren arloan aplikagarriak diren gainerako araudietan xedatutakoarekin bat, jakinarazten da emandako datuak eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzeko helburuarekin tratatuko direla, eta datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa funtzio publikoa izango dela, SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak sortutako estatutuetan ezarritako helburuak betez.

Informazio hori enpresa kolaboratzaileei, gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI taldeko enpresei transmititu ahal izango zaie (ikus <http://www.spri.eus/es/quienessomos/sociedades-del-grupo-spri>).

Interesa duen orok datuen babeseko araudiak SPRIren aurrean ematen dizkion eskubideak erabiltzeko gaitasuna izango du lopd@spri.eus helbidera idatziz. Era berean, erakundeko Datuen Babeseko ordezkariarekin dpd@spri.eus helbidearen bitartez kontaktatu daiteke.

SPRIko Datu Pertsonalen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua kontsultatzeko, jo ezazu www.spri.eus/privacidad webgunean gehitutako Pribatutasun Politikara.

Datuen babesa eskatu behar izanez gero, kontrolerako agintaritza Datuak Babesteko Euskal Bulegoa da ([<http://www.avpd.euskadi.eus>]) www.avpd.euskadi.eus).

12. Edukiak

Ekimen honetan parte hartzen duten ETE eta Startup guztiek ziurtatuko dute borondatez entregatutako lan eta edukiek (laburpenak edo aurkezpenak barne) ez dituztela hirugarrenen edozein motatako eskubideak urratuko eta ekimen honetan

parte hartzeko beharrezko baimen guztiak dituztela. Ezin dira iraingarriak edo umilgarriak izan, ezin dute indarkeria edo arrazismoa bultzatu, ezta oinarrizko eskubideak edo indarrean dauden araudian aitortutako eskubideak urratu ere, haurren eta gazteen babeserako legedia barne; horrez gain, ezin da pertsonen edo familien intimitate pertsonalean sartu edo hirugarren baten ohore- edo sekretu-eskubidea urratu, eta ezin da indarrean dagoen edozein araudiren aurkakoa izan ere.

Horrez gain, aurkeztutako proiektuetan ezin da hizkuntza edo irudi sexistarik erabili.

Gainera, enpresa emergente eta ETE parte-hartzaile bakoitzak baimena ematen die erakunde sustatzaileei beren izena eta irudia ekimenari lotutako publizitate-materialean erabiltzeko, edozein bitarteko edo formatutan, inolako konpentsazio ekonomiko jaso behar izan gabe.

13. Laneko plana, kronograma eta proiektuaren mugarriak

Operazio-baldintzak

- Ekimenak **6-7 hilabete irautea aurreikusten da (urria-apirila)** KADen eta SPRiko proiektu-taldearen laguntzari dagokionez.
- Nolanahi ere, **ETE-ek eta Startup-ek programaren esparruaren barne garatutako proiektuen aurrerapenen berri eman beharko diote talde sustatzaileari urtebeteko epean.**
- Ekimena **batik bat gaztelaniaz** garatuko da; hala ere, sortutako materialak euskaraz eta ingelesez ere egon daitezke.
- Kasu batzuetan, izan liteke ETE-en eta enpresa emergenteen harremana soilik ingelesez izatea Startup parte-hartzaileen nazioarteko jatorriaren ondorioz.
- Ekimenean parte hartu nahi duten ETE-ek jarraian azaltzen den laneko planean zehaztutako jardueretan modu aktiboan esku hartu beharko dute.

ETE-en parte-hartzearen fase eta mugari nagusiak

FASEA	DATA	DESKRIBAPENA	MUGARRIA
0 –Sentsibilizazioa eta ekimenaren aurkezpena	Urriak 27	<input type="checkbox"/> Hautatutako KAD guztien eta ETE parte-hartzaileen arteko workshop-a ekimenaren aurkezpen ofiziala egiteko (kronograma, metodologia eta dinamikak) eta Startup-ekin batera lan egitearen abantailak aurkezteko.	H1 -Ekimenaren aurkezpen publikoa
1 –Erronkak identifikatzea, bereiztea eta aurkeztea.	Urriaren 2tik azaroaren 10era	<input type="checkbox"/> Workshop-a ETE-ekin erronka nagusiak definitzeko <input type="checkbox"/> Lehenetsitako erronkak bereiztea	H2 – KAD bakoitzak identifikatutako erronka komunei buruzko workshop-ak (1 edo 2) H3 – BIND SME Connection-en webgune ofizialean sektoreko erronkak definitzea eta argitaratzea
2-Startup-en scouting-a	Azaroaren 27tik urtarrilaren 10ra	<input type="checkbox"/> ETE-ek planteatutako erronkekin lerrokatutako Startup-ak identifikatzea eta Batzorde koordinatzaileak horiei parte hartzeko gonbidapen proaktiboa luzatzea. <input type="checkbox"/> ETE-ek Startup-ei erronkak aurkeztea eta alderatzea (ez behin betikoa) <input type="checkbox"/> Webgune ofizialean hautagaitzak jakinaraztea eta atzematea	H4 – Startup-entzako deialdiaren argitalpen publikoa

3 - Matching	Urtarrilaren 11tik martxoaren 20era	<input type="checkbox"/> Batzorde eta ETE bakoitzak Startup-en proposamenak ebaluatzea eta hautatzea. <input type="checkbox"/> Startup-ak lehenestea baterako aurkezpen-saioetan parte har dezaten. (Pitching-ak) eta ETE-Startup kontaktuak ezartzeko ekitaldia (B2B saioa). <input type="checkbox"/> Proposamenak hautatzeko euskarria.	H5- Startup-en proposamenak ebaluatzea eta lehenestea H6- Pitching saioa H7- B2B ETE-Startup saioak
---------------------	--	---	--

FASEA	DATA	DESKRIBAPENA	MUGARRIA
4- Proiektuak konfiguratzea eta garatzea	2024ko apiriletik 2024ko abendura	<input type="checkbox"/> Lankidetzeta bilatzea eta ETE-Startup-en baterako proiektuak martxan jartzea <input type="checkbox"/> Kontaktu/proiektuen jarraipena	H8- Proiektuak martxan jartzeko aukera
5- Emaizak ezagutaraztea	Matching-ak amaitzetik 2024ko abendura	<input type="checkbox"/> Ekimenaren baitan egindako proiektuen emaitzak ikusgarri egiteko ekintzak	H9- Proiektua Cluster Day-n edo sustatzaileen antzeko ekimen batean aurkeztea

Datak gutxi gorabeherakoak dira eta aldatu daitezke.

BIND 4.0 Taldeak epe eta data zehatzen berri modu proaktiboan emango du.

14. Startup-ak gonbidatzeko eta hautatzeko proiektua eta proiektua garatzeko akordioa

Gonbidapen-fasea: Startup-en scouting-a

Koordinazio eta ebaluazio batzordeak ETE-ek proposatutako erronkak aztertuko ditu eta Startup-en hasierako identifikazioa egingo du dokumentu honetako 6. puntuan, "6. Startup hautagaien ezaugarriak", deskribatutako Startup-en pool-en artean.

KAD bakoitzak proposatutako erronkekin bat egin dezaketen Startup-ak identifikatu ostean, Koordinazio eta ebaluazio batzordeak ekimenean parte hartzera gonbidatuko ditu.

Horretarako, BIND 4.0 ekimenaren webgunean ETE-ek identifikatutako erronkak argitaratuko dira eta galdetegi bat irekiko da Startup-ek beren proposamenak bidali ditzaten.

Hautaketa fasea: Startup-ak ebaluatzea eta Startup-ETE-en Matching-a

Startup-ak hautatzeko prozesua bi fasetan egingo da: **Ebaluazio fasea eta Matching fasea.**

- Startup-en **ebaluazio fasea** bi azpifasetan egituratzen da:
 - **Startup-en aurre-hautaketarako fasea.** Koordinazio eta ebaluazio batzordeak hautagaiak aukeratuko ditu eta ETE-ek zerranda labur bat eskainiko die Startup-ak ebalua ditzaten. Horretarako, proposamenak jaso ostean, Koordinazio eta ebaluazio batzordeak proposamen horiek aztertuko ditu honako hauek ebaluatuz: argitaratutako erronkekiko egokitzapena, Startup-ak argitaratutako erronka horri erantzuna emateko deskribatutako gaitasun teknikoa, proposatutako erantzunaren berrikuntza-maila, baita Startup-ak planteatutako talde lanerako gaitasuna eta eskarmentua ere. Ebaluazioa 100 punturen gainean egingo da, eta honela banatuko dira:

Ebaluazio irizpideak
1) Balio-proposamena (% 40)
Proposatutako soluzioaren berrikuntza maila.
Planteatutako proposamenaren heldutasun maila (teknologia/produktua edo zerbitzua merkatuko zer fasetan dagoen).
Proposatutako soluzioak ETEan eta merkatuan izango duen eragina.
Proposatutako soluzioaren abantailak merkatuko aukeren aurrean.
2) Talde sustatzailea (% 20)
Talde sustatzailearen prestakuntza- eta lan-gaitasunak.
Aplikatu beharreko sektorean esperientzia eta ezagutza.
3) Proposatutako erronkei egokitzea (% 40)
Proposatutako erronkaren eskakizun teknikoak betetzea.
Proiektuaren deskribapen-maila (faseak, irismena, helburuak, adibideak).
Antzeko premiak dituzten ETE-ei proposatutako soluzioa helarazteko gaitasuna.

- **Startup-ak lehenesteko fasea.** ETE-ek, bere batzordeak helarazitako gomendioen zerrenda laburra jaso ostean, beren erronkei heltzeko aproposentzat jotzen dituzten Startup-ak hautatuko dituzte. Horiek izango dira Pitching saioetara joateko gonbidatuko dituztenak.
- **Matching fasea:** ETE-ek beren Startup gustukoena hautatu ostean, KAD bakoitzak ETE-ei Startup-en proposamenen aurkezpen-saioak egingo dizkie.
 - **Pitch saioetan** zehar, Startup-ek proposatutako erronkei aplikagarriak zaizkien soluzioak aurkeztuko dituzte, eta hori izango da ETE-ek B2B ekitaldirako bilera-agenda bat eskatzeko abiapuntua.
 - B2B ekitaldian zehar, ETE-ek 5 Startup lehenetsiko dituzte gehienez, eta horiekin lehenengo lan-bilera komertziala edo teknikoa egingo dute. Hura izango da hurrengo hilabeteetan zehar etorkizuneko proiektuak konfiguratzeko abiapuntua.

Proiektuak konfiguratzeko eta garatzeko fasea.

B2B ekitaldiaren bidez, BIND 4.0 Taldeak ETE-en eta hautatutako Startup-en arteko kontaktua ahalbidetuko du. Horrek ez du esan nahi haien artean, kontaktuaren ostean, inolako betebeharririk sortzea edo ezarri daitezkeen harreman komertzialekiko inolako erantzukizuna izango duenik.

Planteatutako erronkei erantzuna emateko gaitasuna duen soluzio teknologikoa aurkitu duten ETE bazkideek, baldin badagokie, kontratu bat sinatuko dute zuzenean Startup-ekin, eta KADei hartutako erabakien ezaugarri nagusien berri emango zaie. Dena den, SPRI/KADak ez du proiektuaren ondorengo garapenean inolako garrantzirik edo parte-hartzerik izango.

Baterako proiektuaren irismena, helburuak, iraupena eta baldintza ekonomikoak bi alderdiek adostuko dituzte askatasun guztiz, SPRIren parte-hartzerik gabe.

Kontratuaren edukia soilik sinatzen duten parteei eragingo die, hau da, ETE-ei eta Startup-ei; izan ere, beren artean eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituen izaera pribatuko akordioa baita.

Ondorioz, bi parteek (ETE-ek eta Startup-ek) bere gain hartutako betebeharrak betetzea betebeharraren parte erantzulearen ardura baino ez da izango. Zehazki, alderdiek (ETE-ek eta Startup-ek) adostutako prezioaren ordainketa ETE parte-hartzailearen ardura izango da, eta SPRI/KADa edozein erantzukizun edo betebeharratik libre geldituko da, bai prezioaren ordainketari dagokionez, baita bi parteen artean (ETE eta Startup) adostutako betebeharrei dagokionez ere.

15. Jakinarazpenak

Ekimenari lotutako jakinarazpen guztiak, Startup-entzako erronkak eta deialdia barne, www.bind40.com webgunean argitaratuko dira, edo, bestela, BIND 4.0 eta KAD parte-hartzaileek jakinaraziko dute zuzenean.

Startup parte-hartzaileek SPRI/KADek igorritako jakinarazpen guztiak jasoko dituzte helbide elektroniko bidez, izen-ematearen prozesuan identifikatutako pertsona arduradunaren kontuan.

16. Legezko alderdiak

Parte-hartzaileek, dagokien beste edozein foruri formalki uko eginenez, Bilboko Epaitegi eta Auzitegien mende jarriko dira ekimen honen interpretazioari edo betetzeari zuzenean zein zeharka lotutako edozein eztabaida, desadostasun, arazo edo erreklamazio ebazteko.

17. Harremanetarako datuak

Carmen Sánchez: csanchez@bind40.com

Alain Gutiérrez: a.gutierrez@bind40.com